

ALDA

Iraila 2024 Septiembre • 28 alea

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Aldaketa. Lana. Demokrazia. Alternatibak
Si tú cambias, el mundo cambia

Safu
(Dantzaria eta abeslaria)

Habanako iruindarra

FONDOS NEXT
GENERATION:
COMO PINTAR LA
GUERRA DE 'VERDE'

> 4. ORR

ANDREA JAURRIETA:
"NO ME INTERESA
DARLE PAPILLA AL
PÚBLICO"

> 30. ORR

JAVI JULIO,
DIRECTOR DEL
DOCUMENTAL
'AITA MARI'

> 42. ORR



14

ELKARRIZKETA

Sandra Fuente Salazar, Safu:
“Garrantzitsua da kanpoan
ikasten dugun guztia gero gure
herrira bueltan ekartzea”



22

GAIA

Xavier Antich,
presidente de
Òmnium Cultural



30

ELKARRIZKETA

Andrea Jaurrieta: “Lo
que vende es la evasión
piruleta, la película
del superhéroe”



39

ERREPORTAJEA

Aita Mari ontzia:
salbatutako
milaka bizitza



ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaria: Nagore Uriarte eta Iván Giménez.

Koordinatzailea: Gorka Quevedo.

Idazlariak: Nagore Uriarte, Gorka Quevedo,
 Iván Giménez, Leire Regadas, Davide
 Cabaleiro, Gabriel Zeberio. Lander Zabaleta

Argitaratzailea: ELA, Euskal Sindikatua.

Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

www.ela.eus • **alda@ela.eus**

Lege gordailua: BI-195-1998

ELA
 EUSKAL SINDIKATUA

ALDAko ahotsa | Editoriala**03**

ALDAko Erreportajea | Fondos Next
 Generation: como pintar la guerra
 de 'verde'**04**

ALDAko Lagunak | iker Garaialde,
 Izarkom ekimeneko zuzendaria..**08**

ALDAko Lagunak | Cecilia Osorio
 Cabrera-Cristina Barrial Berbén..**10**

ALDAko Elkarrizketa | Safu..... **14**

ALDAko Gaia | Xavier Antich,
 presidente de Òmnium Cultural..**22**

ALDAko Elkarrizketa | Andrea
 Jaurrieta, *Nina* filmaren
 zuzendaria.....**30**

ALDAko Erreportajea | Javi
 Julio, *Aita Mari* dokumentalaren
 zuzendaria.....**40**

ALDAko Hiztegia.....**46**

KulturALDA.....**47**

PostALDA**48**

Enplegu gehiago, hobeia eta 'ekosoziala'

Krisi ekologikoak ekoizpen, mugikortasun eta kontsumo eredua aldatuko du eta ELAk argi dauka eredu berri horretan langileen eta gehiengo sozialen interesak lehenetsi behar direla. Hain justu, ALDAren ale honetan, Next Generation funtsen inguruko erreportajea, luze eta zabal azalduko dugu egoeraren larritasuna.

Sektoreen arabera inpaktua desberdina izango da: batzuk ez dira onargarriak (esaterako, arma-industria edo espekulazioa) eta desagertu egin behar dira; beste batzuk baztertu behar dira (energia fosilen ekoizpena); eta sektore batzuk uzkuritu edo eraldatu beharko dira (automozioa, siderurgia...).

Dena den, bidezko trantsizio ekosoziala ezin da egin langileak alde batera utzita. Irtenbide justua zor zaie: enpresaren jarduera eraldatu, birkokatu, diru sarrera duinak bermatu...

Bestalde, jakina da sektore batzuetan enplegua sortzeko potentziala handia dela: energia berriztagarriak, eraikinen zaharberritzea, agroekologia, arrantza eta basoen ustiapen iraunkorra, garraio publikoaren garapena, materialen erabileraren eta hondakinen murrizketa, ondasunen berrerabilpena, hondakinen kudeaketa egokia...

ELAk duela zenbait hilabete plazaratu zuen trantsizio ekosozialerako bere proposamen orokorra; orduan esan genuen euskal ekonomiak energia fosilarekiko menpekotasun handia duela, baita inportatutako materialekiko ere, horien kopuru izugarriak behar baititu.

Hori zela eta, hainbat neurri proposatu zituen sindikatuak: materialen eta energiaren kontsumoa gutxitzea, mundu mailako justizia aintzat hartuta; energia sektorea publikizatzea, energia berriztagarriak



garatu eta energia fosilen ekoizpena geldiarazi; ekonomia birlokalizatzea; garraio sistema eraldatzea (elektrifikatzea ez baita nahikoa izango); salgai eta pertsonen joan-etorriak gutxitzea, oinarritzat garraio publiko kolektiboa hartzea; elikadura burujabetza, agroekologia eta basogintza iraunkorra garatzea; ekonomia berrantolatzea, erdigunean zaintza kokatzea, eta zaintza lan feminizatuak banatzea; aberastasunaren banaketa eta lanaldia murriztea soldata jaitsi gabe (35 lan orduko astea, 32 ordukoa lortu arte), eta oinarritzko zerbitzuak desmerkantilizatzea. 

La crisis ecológica provocará un cambio en el modelo de producción, movilidad y consumo, en el que deben primar los intereses de la clase trabajadora y de las mayorías sociales.



Fondos Next Generation: pintar la guerra de ‘verde’

TEXTO: IVÁN GIMÉNEZ

Frente al mito de la defensa de la paz, las libertades y los derechos humanos, la Unión Europea se ha convertido en un régimen de guerra y de militarización.

El régimen de guerra extiende sus alas, con innegable y explícita participación europea. La lógica amigo-enemigo en las relaciones internacionales se impone absolutamente sobre el marco de derechos humanos, impregnando el relato y la práctica política europea. Pese a que la paz, las libertades y los derechos humanos han sido el imaginario que ha recubierto el proyecto de la Unión Europea desde su nacimiento, la realidad es completamente antagónica.

La UE aplica una agenda corporativa y mercantilista: austeridad, política agraria común en favor de la agroindustria, devaluación salarial, control de los presupuestos estatales, rescates bancarios, prioridad y chantaje para el pago de la deuda, virulenta ofensiva con tratados comerciales, extractivismo colonial, necropolítica migratoria, etcétera.

En esta línea se inscriben los Fondos Next Generation (NGEU), cuyo impacto ha sido analizado en un informe elaborado por OMAL (Observatorio de las Multinacionales en América Latina) y publicado por el sindicato ELA, bajo el título *UE: Agenda verde oliva y digital al servicio de las empresas transnacionales*. En resumen: más dinero público para asegurar los beneficios de las grandes empresas.

Fondos... para la guerra

Frente al mito de la paz como su seña de identidad, la Unión Europea se ha convertido en ariete del régimen de guerra y de la militarización, hasta el punto de que la escalada armamentística se presenta como una salida a la crisis económica. Así lo han venido explicando **Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate** y **Gorka Martija** (ambos de OMAL). Estos fondos públicos europeos, lejos de ser unas subvenciones

“a fondo perdido que vienen de Europa”, están condicionados a su devolución (en la parte correspondiente a los créditos) y además obligan a los Estados receptores a imponer medidas profundamente antisociales: reformas laborales; recorte de las pensiones; fiscalidad a favor de grandes empresas y fortunas, y límites a la contratación y a las políticas públicas. En definitiva, vuelta a las políticas de austeridad, que estarán de nuevo en vigor de forma efectiva desde 2025.

En este sentido, regresan el 3% en el déficit y el 60% en la deuda como pilares de esta política. En este año *valle* se pondrá especial énfasis en el seguimiento del déficit, aunque la atención en la deuda no decae, sobre todo para países como el Estado español, que supera ampliamente el 90%, porcentaje considerado como “muy elevado” por la UE. En definitiva, el enfoque restrictivo nunca se fue, siempre estuvo ahí, solo se adaptó a un contexto crítico: inflación, limitación del gasto, contracción del déficit y la deuda pública como objetivos; lo verde, lo digital y lo militar como apuestas prioritarias; y el tutelaje del proyecto europeo como garantía de sometimiento.

El desmantelamiento de lo público y la austeridad en políticas sociales, por tanto, regresan con fuerza inusitada.

Los fondos NGEU, ¿quién reparte y quién recibe?

La CAPV ha sido uno de los territorios donde más claramente se ha dado la simbiosis entre administración, grandes empresas y consultorías corporativas. En julio de 2020 el Gobierno Vasco contrató a PwC para adaptar su Estrategia Vasca de Crecimiento Sostenible a las prioridades marcadas por Bruselas. La polémica suscitada dio lugar a una rectificación obligada,

presentándose el 29 de diciembre de 2020 una nueva propuesta elaborada también por PwC. Esta consultora recibió otro encargo muy similar en septiembre de 2020.

Además, a lo largo de 2023 Deloitte y, de nuevo, PwC han sido adjudicatarias de tres contratos por valor de 2 millones para la gestión de activos de Osakidetza³⁰, proyecto financiado a través de NGEU para la digitalización de su estructura y operativa.

De momento, la CAPV ha recibido 2.339 millones de euros, desglosados en 1.152 millones asignados al Gobierno Vasco para su gestión, y 1.187 millones en iniciativas de gestión estatal directa. A esto se le suman 426 millones en el marco del programa React EU: en conjunto, más de 320 convocatorias resueltas.

Nafarroa, donde parece haber una menor presencia de las consultoras internacionales, ha recibido 950 millones, desglosados en 542 millones que gestionará la Comunidad Foral, y 408 millones en iniciativas de gestión estatal. A esto se le suman 148 millones de euros en el programa React EU. En total, más de 155 convocatorias resueltas.

En todo caso, el informe elaborado por OMAL revela que los fondos Next Generation van dirigidos a las grandes corporaciones multinacionales, con un peso abrumador de la automoción: Volkswagen, Mercedes, Gestamp, Irizar... Los Gobiernos de España, CAPV y Navarra se han volcado en rescatar el sector para salvaguardar sus volúmenes de negocio, obstaculizando de facto la reducción del vehículo privado o el fomento del transporte público.

También se analiza el reparto de fondos destinado a otros sectores.



Destaca que se destinan ingentes cantidades a engrosar burbujas tecnológicas (*greenwashing*) como el hidrógeno (Petronor en Bizkaia, Acciona en Tudela...) o a enfocar la energía eólica en una lógica neocolonial y extractivista (generalizando la instalación de grandes parques en régimen de monopolio corporativo).

En el sector de cuidados, por ejemplo, los fondos Next Generation destinan al menos 119 millones para una supuesta mejora de las residencias, pero abordando las carencias del sector como nicho de negocio y con el fin de aumentar su mercantilización y la llamada cooperación público-privada.

El informe recoge el detalle de otros sectores (agroindustria, etc.), y en definitiva concluye que el objetivo de este plan es recuperar la tasa de beneficio para las grandes empresas gracias al dinero público, a costa de aumentar la precariedad laboral y la conflictividad ecosocial.

A la vista del informe, queda claro que este “capitalismo verde oliva y digital” debe combatirse con un rearme teórico y una gran movilización por parte de la izquierda política, social y sindical, al tiempo que se impulsen alternativas factibles, dentro y fuera de las instituciones. La emancipación de los pueblos de Europa pasa por plantar cara sin ambages a la arquitectura de dominación y explotación que representa hoy la UE.

Recortar pensiones para gastar en armas

ELA ha hecho su propio balance, sacando a la luz que recibir los Fondos Europeos obliga al Gobierno español a imponer recortes del 6,1% en las pensiones a partir de abril de 2025 (unos 11.300 millones de euros anuales). “Quienes aprobaron la reforma de pensiones trataron de ocultar que estaban imponiendo recortes futuros”. La Comisión Europea publicó en abril el *Informe sobre Envejecimiento*: la reforma de pensiones aprobada

en 2023 recogía que, cada tres años, se revisarían las pensiones para adoptar nuevos ajustes. “Los Fondos Europeos –denuncia ELA– son un mecanismo de intervención de las políticas estatales. La responsabilidad es de todos los partidos que posibilitaron la reforma de pensiones, entre los que se encuentran PNV y EH Bildu, que dieron la espalda a la demanda de las organizaciones para rechazar la reforma”.

“El belicismo –denunció hace unas semanas Mixel Lakuntza– está hoy en el centro de la política: más gasto militar a la vez que se recorta el gasto social. Quieren recortar las pensiones para comprar armas, así de simple. Esta es la Europa de los Fondos Europeos, una mentira para favorecer los intereses de las grandes multinacionales. Las actuales políticas europeas ni son verdes, ni sociales, ni están orientadas a la paz. ELA no quiere esconder lo que sucede, y denunciar lo que está pasando es fundamental para trabajar a favor de otra Europa”. **A**

Diru publikoa... Norentzat?

‘Europar Batasuneko agenda berde eta digitala: Aldaketa politikoa ala lehengo lepotik burua?’ jardunaldiak antolatu zituzten ELAk eta Manu Robles-Arangiz Fundazioak. Bertan izan zen OMALeko kide Gorka Martija. Hona hemen bere hitzaldia.

Korporazio handiak dira, batez ere, Next Generation funtsak jasotzen ari direnak. Oraindik badago opakotasun nabarmen bat, hainbat gai ezkutuan mantentzen dituenak. Baina, hortaz haratago, 2023ko abenduan Espainiako Gobernuak Europar Komisioari zerrenda publiko bat bidali zion, eta bertan agertzen ziren espainiar Estatuan zeintzuk izango ziren funtsen onuradunak.

Zerrendan euskal enpresen presentzia ez da txikia. Gainera, azken hilabeteetan bilakaera bat egon da. Gasteizko Mercedes zerrendan agertzen zen, baina handik gutxira 130.000 euro gehiago eskuratu zituen kotxe elektrikoaren harira. Irizarrek ere beste 13 milioi jaso ditu.

Beraz, eguneratzea etengabekoa da. Automozio enpresek pisu nabarmena dute. Badauzkagu Mercedes edo Volkswagen bezalako multinazional handien filialak, baina baita ere gurean jatorrikoa edo matrizea daukaten nazioarteko proiektzioa handiko enpresak, Gestamp edo Irizar, esaterako.

Aipatzekoa da zerrendan Stellantis ez zela agertzen, baina badago



enpresa onuradun horien artean. Automozio multinazional horrek 30 milioi inguru eskuratu ditu orain arte, eta gehiago eskuratzeko asmoa dauka, kotxe elektrikoaren harira. Ez ahaztu Stellantis dela une honetan Bizkaian dagoen deslokalizazio prozesu garrantzitsuenetariko baten protagonista, Urdulizko Mecaner trokeleria, alegia.

Next Generation funtsen inplementazioan subkontratazio maila oso altua da, batez ere AHTko kontraten eta mugikortasun jasangarriaren ingurukoan, besteak beste.

Hemen ere CAF edo Irizar bezalako enpresen presentzia garrantzitsua da, eta badaude beste hainbat enpresa (eraikuntzan, adibidez), rol garrantzitsu bat daukatenak, Sacyr bezalako multinazional espainiarren eskutik doazenak, esaterako.

Zer finantzatzen ari da Next Generation funtsen bitartez Hego Euskal Herrian?

Bi logika ezberdin identifikatu ditugu. Batetik, *guztiontzako kafearen* logika, baliabideak ahalik eta sektore eta eragile gehien artean zabaltzearena, alegia, suspertze ekonomiko tradizionalago bati lotutakoa. Bestetik, badago estrategikoki identifikatutako hainbat sektoreen lehenespen bat. Estrategikoak omen dira gure lurraldean punta puntako izaera daukatelako, ITP Aero, adibidez, edota batez ere, nitxo berde eta digital horren garapenarekin lotura izateagatik.

Proiektu zehatzei begiratuta, kotxe elektrikoentzako baterien fabrikazioa eta montaketa arlo garrantzitsua da. Adibidez, Basquebolt ekimena, Miñaoko parke teknologikoan dagoena, Eusko Jaurlaritzak bultzatu duena



eta Iberdrola, CIE-Automotive eta EnaGas bezalako multinazionalekin garatutakoa; momentuz 20 milioi inguru eskuratu ditu Next Generation funtsen bitartez. Edo litiozko baterien esparruari lotuta, Gasteizko Mercedesek eskuratu dituen 129 milioiko subentzio berria.

Automozioaren sektorea kontraesanez betea

Bateriez haratago, Sapak dirua jaso du bestelako aplikazio teknikoak garatzeko. Bestetik, badaude Eusko Jaurilaritzak bultzatutako zenbait ekimen publiko-pribatuak europar finantzaketa horren zain daudenak: Jundizen kokatuta dagoen Autogintzarako Zentrua. Kotxe elektrikoa garatzeko Eusko Jaurilaritza, SPRI, Gestamp, Mercedes eta Mondragón bezalako korporazioek bultzatutako zentrua da. Hauek dira proiektu izarrak.

Mugikortasun jasangarriaren esparruan ere subkontratazioaren logika horiei lotuta mugitzen ari dira hainbat udal eta aldundiak, garraio publikorako flota elektrikoak berrizteko, edota AHTren eraikuntza finantzatzeko.

Ikuspuntu kritiko batetik, automozioaren zentraltasunak sustatzen du europar funtsen kontraesan nagusietako bat. Korporazio handien nagusitasuna eta estrategia desarrollistak ez dira bategarriak trantsizio ekosozial justu batekin. Bateraiezintasun hori nabarmen azaleratzen ari da funts hauen bitartez.

Beste sektore bat aztertu dugu: hidrogenoa. Next Generation funtsak iragarri zirenetik oso esparru mediatikoa izan da. Euskal korridorea (Eusko Jaurilaritzak eta Bizkaiko Aldundiak babestuta) proiektu izarra da. Petronorrek in batera bultzatzen ari diren megaproiektu bat da, halako triangelu batean: Petronorrek



Muskizeko planta, Bilboko portua, eta Meatzaldeko parke teknologikoa (bertan Energy Intelligent Center deitutako ekimena sortu nahi dute).

Esparru honetan dirua motelago heltzen ari da, automozioarekin konparatuta. Ez dago ziurtasunik teknologia honen benetako aplikagarritasunaren inguruan, baina hala ere 15 milioirekin finantzatu dira proiektu pare bat hidrogenoaren korredoreari zuzenki atxikituta daudenak. Edozein kasutan, euskal korridorea leihan ari da Mediterraneo aldean H2MET korredorearekin: Atlantikoaren eta Mediterraneoaren arteko lehia badago Europako hidrogenoaren merkatuan abantailaz jokatzeko, eta horren bidez Espainiako

Gobernuaren faborea irabazteko, bata bestearen kaltetan.

Hirugarren sektorea: energia berriztagarriak

Hego Euskal Herrira hasi da gutxinaka-gutxinaka dirua iristen, parke desberdinak finantzatzera. Nafarroa aitzindaria izaten ari da azken urteetan azpiegitura berriztagarrien esparruan. Tuterako edo Correllako plantak europar funtsak jaso dituzte. Ikusteke dago EAEn zelako eragina izan dezakeen, EVE eta Starkraft enpresen arteko lehia ikusita.

Zaintzen sektorea

Esparru estrategiko bat izan da Next Generation funtsen diseinuan,



bi elementugatik: biztanleriaren zahartze prozesu azkarra eta administrazioek gero eta zerbitzu gehiago esternalizatu izanak; horrek zaintzen esparrua negozio bilakatu dute. Horregatik, hainbat ekimen jada finantzatu dira Hego Euskal Herrian. Adibidez erresidentzien modernizazioak, nahiz eta ez jakin ondo zer esan nahi duen horrek... Edo etxex etxeko laguntza zerbitzua digitalizatzeko, Bizkaiko Aldundiaren Etxetik izeneko ekimena Next Generation funtsen bitartez finantzatu da, merkantilizatutako sektore baten baitan.

Hiru konklusio

1. Hego Euskal Herriko korporazio nagusiak Next Generation funtsak bereganatzen ari dira, oso modu nabarmenean.
2. Inplementazio eskema honek bi ildo konbinatzen ditu. Alde batetik, gure lurraldeko enpresa eta sektore tradizionalak indartzea; eta bestetik, dirulaguntza masiboen bidez negozio nitxo berriak irekitzea, Next Generation funtsen erretorika berde eta digital horren aitzakiarekin.
3. Hori guztia benetako trantsizio ekosozial justu baterako edozein kontsiderazioren kanpo egiten ari da. Azken finean hori ez delako inoiz izan Next Generation funtsen benetako helburua edo benetako pretentsioa. **A**

Iker Garaialde Etxaburu, Izarkomeko zuzendaria

Izarkom, telekomunizio burujabetza lantzeko herri ekimena



Izarkom puede ser un buen ejemplo del papel que juegan las iniciativas populares en el desarrollo de áreas estratégicas de Euskal Herria en colaboración con gobiernos locales y agentes sociales.

Internet ezinbesteko tresna bihurtu da hainbat giza eskubide gauzatzeko garaian. Justizia, hezkuntza, lana edota osasungintza bezalako oinarritzko eskubideak gero eta gehiago bideratzen dira sare honen bidez. Ondorioz, Interneterako sarbidea gizarte eskubide bihurtu da egun, baina hori horrela izateko, bermatu behar da sarearen erabilgarritasuna, sarbidearen irisgarritasuna eta salneurriaren eskuragarritasuna. Edozein pertsonak izan beharko luke Interneterako konexio duin baterako eskubidea, munduko edozein tokitan egonik ere eta bere egoera ekonomikoa edozein izanda ere.

Ez da, ordea, egun dugun errealitatea. Gaur egun, munduko biztanleriaren %34k, 2.600 miloi pertsonak, ez du Interneterako konexiorik.

Honela, 2011. urtetik hona Nazio Batuen Erakundeak zenbait ebazpen eta txosten argitaratu ditu Internet Giza Eskubide gisa babestu beharraren inguruan eta gobernuei Interneterako konexioa herritar guztien eskura jarri zezatela eskatuz. Hala nola, 2011ko maiatzaren 16an Giza Eskubideen Kontseiluan Frank La Rue Errelatore Bereziak aurkeztutako *Iritzi eta adierazpen askatasuna sustatu eta babesteari buruzko txostena* (A/HRC/17/27), 2015eko martxoaren 24ean Giza Eskubideen kontseiluak argitaratutako *Pribatutasunerako eskubidea aro digitalean ebazpena* (A/HRC/28/L.27), edo 2016ko ekainak 27an Giza Eskubideen Kontseiluak argitaratutako *Giza eskubideen sustapena, babesa eta gozamena Interneten ebazpena* (A/HRC/32/L.20).

Urtebete lehenago, Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunak (ITU) eta UNESCOk osatutako Banda Zabalen gaineko komisioren 2010erako ezinbesteko lidergoa: *Banda Zabalean eraikitako etorkizuna* izeneko txostenean adierazi zuten moduan, “21. mendean, banda zabaleko sareak ezinbesteko nazio-azpiegituratzat hartu behar dira, garraio, energia eta ur sareen antzera”.

Hau horrela izanik, argi badugu errepide, ur sare eta oinarritzko beste azpiegitura eta zerbitzuek publikoak izan behar dutela eta ezin direla pribatizatu, zergatik onartzen dugu banda zabaleko konexioa hedatzeko zuntz optiko bidezko errepide digitalak enpresa pribatu transnazionalen esku egotea? Eta nola onartu beharrezkoak ditugun azpiegitura eta zerbitzu hauek merkatuko salgai gisa erabilita izugarritzko etekinak lortzeko soilik baliatzea?

Internet se ha convertido en una herramienta imprescindible a la hora de ejercer diversos derechos humanos. Los derechos fundamentales como la justicia, la educación, el trabajo o la sanidad se canalizan cada vez más a través de esta red. En consecuencia, el acceso a Internet se ha convertido en un derecho social, pero para que esto sea así es necesario garantizar la disponibilidad de la red, la accesibilidad y un precio razonable. Cualquier persona debería tener derecho a una conexión digna a Internet, esté en cualquier parte del mundo y sea cual sea su situación económica.

Internetek herri baten garapen ekonomiko, sozial eta politikoa sustatzen ditu, gizartearen garapena bere osotasunean bultzatuz, baina horretarako ezinbestekoa da telekomunikazio azpiegituren jabetza eta kudeaketa publikoa eta gardena izatea, herrien etorkizuna ere enpresa pribatuen interesen pean utzi nahi ez badugu behintzat.

Europar Batasunak, aldiz, sektorearen liberalizazioaren alde egiten du, lehia askea eta telekomunikazio operadore pribatuen merkatua babesteko arau eta lege zorrotzak argitaratuz, eta honekin erakunde publikoen partehartzea oztopatuz.

Tokiko gobernuek ere ez dute gizarte eskubide hau babesteko saiakera handiegirik egiten zentzu honetan, eta Europak ezarritako arau eta lege kapitalistak itsu-itsuan betetzera mugatzen dira, merkatu librearen jarriz gizartearen eskubideen gainetik.

Jendartearen ongizatea helburu

Urrutira begiratu behar izan gabe, denok dugu buruan gure herrian Euskaltekin gertatutakoa. 1992an Eusko Jaurlaritzak Euskalnet sozietate publikoaren bidez zuntz optiko bidezko datu-komunikazio sare bat eraiki eta EAEko BBK, Kutxa eta Vital aurrezki kutxekin batera Euskaltel operadorea sortu bai, baina zenbait urte beranduago nola zuntz optiko sare publiko



hau Euskalteli saldu ondoren Euskaltelen zituen akzio guztiak atzerriko inbertsoreei saldu zizkion. Honekin, bertan behera geratu zen EAEn telekomunikazio azpiegitura publikoak eta interneterako konexio zerbitzuak emango zizikigun partizipazio publikoko operadorea edukitzeko aukera.

Gauzak horrela, Euskal Herriarentzat estrategikoak izan daitezkeen arloetako erabaki eta kudeaketan gizarte-eragileok partehartze zuzena izateko ukan beharko genukeen aukera aldarrikatuz, eta euskal jendarteak urte luzeetan izan duen autoantolaketarako ohiturari eutsiz, Izarkom, Euskal Herriko Telekomunikazio Kooperatiba, sortzeko erabakia hartu zuen herritar talde batek 2017ko abenduan, irabazi asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko kooperatiba integrala. Helburua, telekomunikazioen arloan herri gisa behar ditugun azpiegitura eta zerbitzuak jendartearen antolakuntzaren bidez eskuratu eta herritarren Interneterako konexio eskubidea egikaritzea. Finean, telekomunikazioen gaineko

burujabetzarantz bidea egiten joatea.

Herri ekimenen garrantzia arlo estrategikoetan

Bere jarduna Gizarte-ekonomia Eraldatzailean oinarritzen du proiektu honek zuntz optiko bidezko 2.500 internet konexiotik gora eta ia 7.000 linea mugikorreko zerbitzua ematen die bere 3.500 bazkideri, eta azken urtetan gero eta gehiago dira Izarkomera batzen diren Udal, erakunde eta gizarte eragileak, proiektuak herri ekimen gisa gorputza hartuz.

Sei urte hauetan ere hainbat izan dira euskal jendartearen ongizatea helburu duten edota egoera zaurgarrian dauden herritarrei laguntzeko abiatutako ekintzak. Ezagunenak, behar bada, 2020ko martxoan COVID-19aren ondorioz etxean konfinatu eta konexio duin baten faltan klaseak jarraitu ezinean zeuden ikasleei datu bidezko konexioa errazteko 1.500 SIM txartelen banaketa edota Irungo Harrera Sarearekin elkarlanean, berrereabilitako telefono mugikorrak jaso eta beraien familiekin harremanetan jartzea erraztu ahal izateko Afrikatik datozen migratzaileei helarazteko kanpaina.

Honez gain, Udalbiltzarekin batera abiatutako EHKOM sare-operadore neutroaren bidez eta tokiko instituzio eta eragileekin elkarlanean, operadore guztiek erabiltzeko aukera izango duten zuntz optiko edo irrati-lotura bidezko sare telematikoko publiko-komunitarioak sortzen ari dira, Zaratamo, Oñati, Hernani eta beste zenbait herritan.

Tokiko gobernu eta gizarte eragileekin elkarlanean Euskal Herriko arlo estrategikoen garapenean herri ekimenek zer esana izan dezaketaren adibide ona izan daiteke Izarkom. 

Cristina Barrial y Cecilia Osorio, periodistas

Organizar lo posible



Javier Mileik
Estatua desegingo
zuela agindu
zuen, eta betetzen
ari da. Gaur,
Argentinako
populazioaren
%55 pobrea da.
Milioi bat ume
afaldu gabe doaz
ohera egunero.

Gritos, llantos, gente mayor desmayada. El 28 de agosto, frente al Congreso de Argentina, cientos de jubilados denunciaban que el gobierno los había “cagado a palos”. Con porras y gas pimienta, la policía arremetió contra los manifestantes. La concentración surgió en respuesta al veto del presidente a una ley que aumentaba las pensiones.

Con su ideas ‘anarcolibertarias’, Javier Milei prometió dismantelar el Estado y lo está cumpliendo. Lastime a quien lastime. No le ha temblado el pulso para desabastecer de alimentos a comedores populares, de medicamentos a enfermos, despedir a miles de funcionarios públicos y paralizar la obra pública. El mantra “no hay plata” cristalizó en un plan de ajuste histórico. Deshumanizado. Destructivo. Cruel.

Sin embargo, y contra todo pronóstico, la población lo sigue apoyando aunque haya bajado algunos puntos. Las últimas encuestas señalan un respaldo del 44%. Una respuesta a esta confianza podría ser la reducción de la inflación. Esta fue la promesa más repetida por Milei en su campaña, y un logro nada despreciable para una población que desde hace años convive con el aumento incontrolable de precios. En realidad, esta reducción no se debe a una política económica sostenible, sino a la pérdida del poder adquisitivo de los y las argentinas. Hoy, el 55 % de la población es pobre. Un millón de niños y niñas se van a dormir sin cenar y las organizaciones sociales alertan sobre el aumento de la prostitución infantil y el avance del narcotráfico reclutando niños y jóvenes en barrios donde el Estado se desdibuja.

Orain progresismoaren figura askok galdetzen dute zer gertatu zen, nola galdu zuten beren kapital politikoa, nola berreraiki. Autokritikatik eta egoeraren azterketatik haratago, Mileiren proiektuak elikatzen jakin zuen itxaropenari aurre egiteko gai diren proposamenak behar dira.

Las políticas sociales aprobadas en gobiernos anteriores y las redes de la economía popular sostienen a una sociedad desangrada, pero nadie puede vaticinar qué pasará en los próximos meses. Milei pidió paciencia y sacrificio, y parecería que la mayoría lo está acatando, o que la política de *shock* dejó a la sociedad bajo una anestesia generalizada. Hasta el momento, las movilizaciones no son transversales ni multitudinarias. Los que sí salen a las calles se enfrentan a un *protocolo antipiquete* aprobado por el gobierno, que reprime y disciplina.

La tensión latente frente a un estallido social que no ocurre trae de inmediato el recuerdo de la crisis del 2001. En ese momento, el grito '¡Que se vayan todos!', el descreimiento por la dirigencia política, encontró respuestas en el progresismo peronista del kirchnerismo que logró revitalizar una identidad política.

Acompañó las luchas por la memoria y al feminismo en la conquista de derechos. Redujo la pobreza, aunque no consiguió frenar la crisis económica endémica que arrastra el país desde hace décadas y que reactivó el hastío con la clase política. Ahora ese hartazgo ha sido capitalizado por la figura mesiánica de Milei, con nuevas propuestas que son, en realidad, viejas y conocidas recetas neoliberales.

Milei conectó con el sufrimiento y el miedo, pero también con

la esperanza de millones de argentinos. La fe en el proyecto libertario la abonan muchos jóvenes que sintieron que la pandemia recortó sus libertades, y hoy se ven seducidos por el imaginario de un éxito económico inmediato.

A su vez, parte del electorado provino de sectores tan diversos como la clase media antiperonista, pero también de una clase trabajadora que desde hace décadas no ve modificadas sus condiciones materiales. Ahora, la esperanza dentro de esta mística salvacionista está en la libertad y el mercado. En tanto, hasta llegar a la tierra prometida, el pueblo hace el sacrificio mientras los grandes capitales aprovechan el desastre para imponer políticas que saquean al país.

Ataque al feminismo

En medio de este contexto, las organizaciones sociales que desde hace más de veinte años contienen y movilizan en los barrios populares, son demonizadas. Los llamados despectivamente planeros, es decir, quienes reciben un plan estatal por realizar un trabajo, son considerados un mal a erradicar. Estas organizaciones, que nacieron al calor de los piquetes y los cortes de ruta del 2001, legitimaron otras formas de ganarse la vida. Aquellas que se hicieron más visibles cuando las políticas neoliberales de los 90 destruyeron el empleo y vaciaron la cesta de la compra: cartoneras,

vendedoras ambulantes, cocineras de ollas populares. Todas estas ramas laborales, agrupadas bajo el concepto de *economía popular*, crearon la Unión de Trabajadores de la Economía Popular (UTEP), un sindicato con una participación de mujeres que ronda el 60%.

Parte de la ofensiva ultra del actual gobierno ha sido atacar al feminismo, desfinanciando las iniciativas institucionales que pretendían poner coto a la violencia machista.

Mientras tanto, son las organizaciones del feminismo popular las que siguen acompañando a las mujeres en los barrios, sosteniendo espacios de atención especializada también en el caso de consumos problemáticos y luchando porque el trabajo en las ollas populares se remunere. En los barrios la lucha pasa por sostener lo que ya existía y disputar el discurso: el feminismo popular sí cambió vidas.

Ahora muchas figuras del progresismo se preguntan qué pasó, cómo perdieron su capital político, cómo reconstruirlo. Más allá de la autocrítica y del análisis de coyuntura, se necesitan propuestas capaces de disputar la esperanza que el proyecto libertario sí supo alimentar. Volver a dotar de sentido a lo colectivo aún en un contexto global en el que la balanza sigue decantándose hacia el otro lado, el del '¡Sálvese quien pueda!'.

A su vez, desde la economía popular, extender los ecos del 2001 transformados en autogestión y comunidad parece hoy algo lejano. Sin embargo, las organizaciones sociales tienen una gran responsabilidad en este sentido, y es que más allá de los errores, el conocimiento y la experiencia de décadas serán el sedimento imprescindible para la primera persona del plural que acontezca. ▲

“Garrantzitsua da kanpoan ikasten dugun guztia gero bueltan gure herrira ekartzea”

TESTUA: GORKA QUEVEDO ARGAZKIAK: LEIRE REGADAS

Uztaileko ostiral eguzkitsu batean geratu ginen Sandra Fuente Salazarrekin, Safu. Sanferminetako ajea pasata, Arrotxapeako (Iruñea) taberna batean egin genuen hitzordua. Safu auzoari oso lotuta dago, eta kanpoan dagoenean faltan botatzen du. Izan ere, lan kontuak medio, Safuk Madrilen bolada luzeak igarotzen ditu. Dantzaria eta abeslaria, milaka gazteren erreferentea da Safu. Beti ere, topikoak apurtuz.



» Norekin gaude kafea hartzen, Sandrarekin ala Safurekin?

Berez pertsona bera gara. Ni Sandra naiz. Safu nire bizitzara etorri zen *Fama, ia bailar!* telebista saiora sartu nintzenean. Hor hasi nintzen Safu izena erabiltzen, baina niretzat ezin dira bereizi artista eta pertsona. Dena Sandran sortzen da azkenean. Sandra eta Safuren artean harreman ona izatea gustatzen zait, pertsona bera garelako. Sandra da familiarekin edo lagunekin dagoena; Safu alter egoa erabiltzen dut orain bezala elkarrizketa bat egiten nagoenean edo eszenatokira igotzen naizenean.

Biekin eroso sentitzen naiz, baina artistak garenean gauzak bere tokian jartzen jakin behar dugu. Ez dut egun batean esnatu nahi eta famatua edo ezaguna izateagatik Sandra ahaztu. Ez dut galdu nahi Sandra izatean esentzia eta jendearekin dudak harreman normala. Noski, batzuetan barruan dudak sua ateratzen behar daukat eta Safu bihurtu, lotsa galdu. Izan ere Sandra pertsona bat da, bere beldurak ditu, bere lotsak; Safu momentu horietan aurrera ateratzeko sortu dudak alter egoa da.

» Nondik datorkizu dantzatzeko abilezia?

Ama Kuban jaio zen. Beste kultura bat da, oso harreman ona dute dantzarekin, musikarekin. Ama 25 urte zituela etorri zen hona, aita ezagutu zuenean. Etorri zenean dantza eskola bat sortu zuen. Txikitatik bertara joaten nintzen amak eskolak nola ematen zituen ikustera. Horregatik txikitatik nire alor artistikoa garatu dut.

» Dantza eta musika ezberdin bizi dira Kuban edo hemen?

Nik uste gauza kulturala dela. Kuban, esaterako, musikari edo

jaiari beste presentzia bat ematen diote. Agian badira tokiak non pobrezia gehiago dagoen eta mentalitatea beste bat den, lanari ez horren lotuta. Gutxiagorekin pozago bizi dira, eta bizitzeko era horrek jendea beste era batekoa izatea eragiten du. Nik zortea dut eta bi mundu hauek bizi ditut, nire amaren mundua eta nire aitaren mundua.

Jende beltzaranak badu arte berezi bat, beste txip bat, baina gauza kulturala da. Latinoamerikan edo Afrikan dantza eta musika berezkoa dute, bertan sortutako hamaika dantza eta musika daude. Musika gizakiarekin sortu zen, eta gizakia Afrikan sortu zen. Agian horregatik musikarekin lotura estuagoa dute.

» Txikitan dantzatzea eta abestea zenuen gogoko. Hala ere, soilik dantza egiten zenuen, gutxienez publikoaren aurrean. Zergatik?

Txikitan kosta egin zitzaidan nire inguruaren parte sentitzea. Beti sentitu izan naiz ezberdina. Erdi kubatarra erdi iruindarra naiz. Hemen nagoenean ez naiz Iruñekoa, *'beltzarana'* naizelako. Baina Kubara goazenean, *'Espainiakoak'* gara. Horregatik txikitatik nire buruan disforia pixka bat izan dut, eta buila gehiegi egin gabe erosoago sentitzen nintzen, gehiegi nabarmendu gabe. Eta, azken finean, dantza mugimendua da, baina isilik zaude, ez duzu horrenbeste nabarmentzen.

Hori bai, bai ala bai artista izan nahi nuen. Horregatik hasi nintzen dantzan, lotsa gutxiago ematen zidalako. Orain hazi egin naiz, eta txikitan buruan nituen hainbat gauza aldatzen joan zaizkit. Eta eskerrak! Orain ni naizen bezalakoa naiz, buruan nituen tontakeria horiek kendu zaizkit.

» 2018an Madrilera joan zinen 'Fama, ia bailar!' telebista saioko castingera, eta hautatua izan zinen. Dantza zaletasuna izatetik lana izatera igaro zen.

Pasada bat izan zen. Madrilera heldu nintzen casting-a egiteko eta 300 bat pertsona egongo ziren bertan. Hori izan zen industria honekin izan nuen lehen harremana. Bizitza osoa neraman dantza egiten gustatzen zitzaidalako. Bat-batean castingera heldu eta jendetza hori ikusi nuen, denak izugarritzko gogoez eta oso ondo prestatuak. Txoke handia izan zen.

Uste dut denok prest gaudela geure bidea egiteko, eta Madrilera heldu nintzenean ni ere prest nengoen. Dantzari bezala txikitatik eszenatokira igotzen zara, jendaurrean aritzeko prestatzen zaituzte. Tontakeria dirudi, baina kurtso amaierako ikuskizuna egiten duzunean horretarako prestatzen ari zara, ikusleen aurrean dantzatzeko. Castingera heldu nintzen eta neure buruari esan nion: "Iruñetik zatoz, Arrotxapeatik, eta aurrean dituzunak meriendatu behar dituzu!", kar kar. Barruan neukan garra eta furia ateratu nituen eta lan hori lortu nuen.

» 'Fama, ia bailar!' saioak ospea eman zizun. Baina, handik gutxira, COVID-19aren izurritea zabaldu zen. Dena geratu zen. Zer pentsatu zenuen?

Putada bat izan zen. Fama bukatu eta gutxira Madrilera joan nintzen bizitzera, 2019an. Orduan hasi nintzen dantza zirkuituetan mugitzen eta ezagunagoa izaten. Beraz, argi dago arlo profesionalean pandemiak min handia egin zidala.

Hilabete horiek bideoak eta abar egiteko aprobetxatu nituen. Nik uste denok egin genituela sare sozialetarako bideoak; batzuek

bizkotxoak egiten zituzten eta ni koreografiak egiten hasi nintzen. Pandemia egon izan ez balitz agian lortuko ez nituzkeen hainbat gauza lortu nituen. Egindako koreografiekin ospea lortu nuen, eta hori berrogeialdian egindako bideoi esker izan zen. Berrogeialdiaren ostean izen handiko eskola batean dantza klaseak ematen hasi nintzen, eta hori pandemiari esker izan zen, nolabait.

Bidea ez da erraza izan. Iruñetik joatea ez da erraza izan, pandemia Madrilen bizitzea ez da erraza izan, baina zailtasun horiek egin naute, beltzarana izateak egin nauen bezala.

»2021an lehenengo kantuak egin zenituen. Esan duzu txikitan publikoaren aurrean kantatzeak lotsa eman zizula, ez zenuelako nahi zure burua nabarmentzea. Noiz galdu zenuen lotsa hori?

Madrilen nengoenean txikitan ez neukan konfiantza lortu nuen. Oinarri bat nuen: ondo sentitzen nintzen neure buruarekin, egiten nuenarekin eta nire inguruarekin. Horrek indarra eman zidan. Ziur nengoen erabakiaz eta nire mundua nire erara bizi nahi nuen. Niri jaleoa gustatzen zait, mugimendua. Neure buruarekin segurtasuna lortu nuenean lehen abestiak grabatzeari ekin nion.

»Lehen abesti horietan egunerokotasunari lotutako gaiak zuden: bikotearekin harremana, lana, bizitzako pasarteak... Zergatik hasi zinen zure bizitzarekin lotutako gauzak kantatzen?

Batxilergo artistikoa egin nuen. Elkarrizketa hasi aurretik esan dizut apurtxo bat sorgina naizela (kar kar...). Pentsatzea gustatzen zait, gauzei harremana bilatzea, gauzen zergatia jakitea... Jabetu nintzen batxilergoan artisten biografiak



“De pequeña me costó sentirme parte de mi entorno. Siempre me he sentido diferente. Soy mitad cubana mitad pamplonesa. Cuando estoy aquí no soy de Pamplona, porque soy ‘negra’. Pero cuando vamos a Cuba somos ‘de España’. Por eso desde pequeña he tenido un poco de disforia en mi cabeza, me sentía más cómoda sin hacer demasiada bulla, sin destacar demasiado”.

ikastea gustatzen zitzaidala, eta ni artista sentitzen naiz. Gustatzen zait nire obra nolakoa izaten ari den aztertzea. Batxilergo artistikoa ikasten atera nuen ondorioetako bat izan zen artista on batek bere obran bere bizitza kontatu behar duela. Nire bizitza nire obra da. Pertsona arraroa naiz. Lo egitera berandu joaten naiz, berandu altxatzen naiz. Artista baten maniak ditut, mania apurtxo bat zoroak... Artista batek bizitzen duenarekin egin behar du bere obra.

»Zure produkzioek milaka erreprodukzio dituzte, izen handiko markekin kolaboratu duzu, Fuego Razzmatazz, OnFire Party edo Madrid Switch On bezalako ekitaldietan hartu duzu parte... Espero al zenuen?

Lehenik eta behin, nire musika niretzat egiten dut, lasaigarri moduan. Gero, nire helburua gainontzeko pertsonen nirekin konektatzea da, antzekoak



sentitzen direlako, zure musika jendeari heltzen zaiolako. Horrela ez zara sentitzen bakarrik.

Musika sortzeko eta abesteko gaitasuna dut, eta hori baliatu nahi dut gauza politak egiteko. Hau da, ez dut nahi musika egin egite hutsagatik. Musika sortzea oso gauza berezia da, ezin da egin egiteagatik. Medikura zoazenean medikuak bere lana ondo egitea nahi duzu, profesional ona izatea. Artistekin gauza bera. Nire nahia lana ondo egitea da, bihotzetik sortutako lana egitea.

Agian urte asko barru eskolaren batean nire obra aztertuko dute, nik batxilergoan beste artista askoren obra ikasi nuen bezala. Eta ikasiko dute, edozein artistekin gertatzen den bezala, nire obrak hainbat etapa dituela. Lehenenengoa dantza, hurrengoa musika, gero musikaren barruan estilo ezberdinak... Nire obran nahi dudana da koherentzia bat egotea, pertsona koherente bat izatea, eta, hortaz, nire musika ere koherentea izatea.

»Zure letretan errebeldia dago, gazte askok bizi duzuen egoera jasotzen da. Zure belaunaldikoek sentitzen duzue gizarteak ez zaituztela ulertzen? Ez ulertuak izatearen puntu bat dago?

Badago, bai. Bizitzak bere erritmoa du, eta mundua pertsona helduek gidatzen dute. Negozioen munduan botere handiena duten pertsonak helduak dira. Edo presidenteak. Ez dago 25 urte dituen presidenterik. Eta agian gauza naturala da, bizitzan denok etapa batzuk igaro behar ditugulako. Naturala da ere gazte batek pentsatzea '*honekin ez nago ados*' edo '*honek ez nau ordezkatzeko*'. Bizitzan etengabe gaude ikasten, eta gaztetan ikasten ditugun gauzekin heltzen gara





heldutasunera. Eta hor, gazteen eta helduen artean arrakala badago, beti egongo dena, baina era berean naturala dena. Horrek arlo artistikoan eta kulturalean bere eragina du. Rapa, hip hopa edo trapa bezalako estiloak sistemaren kontra-kulturaren aurka zeuden gazteen eskutik sortu ziren, edo rock&rola bera. Bizi zuten ereduaren kontra zeuden gazteek sortutako estiloak dira.

